

**9/2016. AKTA**  
**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK**  
**2016ko AZAROAREN 22n EGINDAKO BILERA**

**BERTARATUAK:**

**PRESIDENTEA:**

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*

**LEHEN PRESIDENTEORDEA:**

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruenigoko alkatea*

**BATZORDEKIDEAK:**

Javier Albizu Sanz, *Artazuko alkatea*  
Arturo Golaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*  
Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*  
Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesko alkatea*  
Joseba Asiron Saez jn., *Iruñeko alkatea*  
Raimundo Aguirre Yanguas jn., *Fiteroko alkatea*  
Angel Obanos Galar jn., *Artikako presidentea*  
Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko lehendakaria*  
Nieves Recalde Zaratiegi and., *Etxagueko presidentea*  
Maria Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*  
Ur Alguero Chivite jn., *Aresoko alkatea*  
Unai Lako Goñi jn., *Agoizko alkatea*  
Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*  
Angel Navallas Echarte, *Zangozako Eskualdeko Mankomunitatea*  
Karmele Marañon Chasco and., *Arbizuko alkatea*  
Jesus Maria Rodriguez Gomez jn., *Ribaforadako alkatea*

**Ezin etorria adierazi du:**

David Alvarez jn., *Castejongo alkatea*

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hamaseiko azaroaren hogeita bian, arratsaldeko lauretan, bigarren deian, batzorde betearazlea elkartu da Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioaren egoitzan (Tutera karrika 20-3. solairua, Iruñea), eta bertan izan dira albo batean aipatutako batzordekideak. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. izan da, eta idazkaria, berriz, Berta Enrique Cornago andrea, erakundeko idazkaria, honakoa izanik,

**EGUNEKO GAI ZERRENDA**

- 1.- Bigarren presidenteordea izendatu.
- 2.- Bigarren presidenteorde partaide zen batzorde eta kontseilu sektorialetarako haren ordezkioak izendatu.
- 3.- NUKFk 2016an eginen duen ohiko batzar nagusiko deialdia eta gai zerrenda.
- 4.- NUKFren kudeaketa-txostena, 2016.
- 5.- NUKFren 2017rako jarduera-programa.
- 6.- NUKFren 2017rako aurrekontua.
- 7.- Euskara teknikaria kontratatuzeko oinarriak onartu.
- 8.- Presidentearen informazioa.
- 9.- Galde-eskeak.

**1. PUNTUA. Bigarren presidenteordea izendatu.**

Presidente jaunak azaldu du, aurreko batzorde betearazlean jakinarazitakoaren arabera, bigarren presidenteorde kargua hutsik geratu dela, orain arte alkate eginkizunetan jardun den Javier Perez Cuevak alkate izateari utzi diolako. Jakinarazi da, halaber, Ollolibarko Udalak kargugabetzeko hartu duen erabakiari helegitea jarri zaiola Nafarroako Administrazio Auzitegian.

Gai horren inguruan esan du, NUKFren estatutuetako 46. artikulua honela diola: "Lehendakariordetzetan gerta litezkeen betegabetzeak, Batzorde Exekutiboak finkatu bezala beteko dira."

Hainbat aukera egonda, presidenteak proposatu du batzorde betearazleak aukera dezala batzordekideen artean norik beteko duen bigarren presidenteordetza-kargua; horrek aukera emanen liguke bigarren presidenteordea Javier Perez kide zen batzorde eta kontseilu guztietarako izendatzea.

Ondorioetarako, kargua Ribaforadako Udaleko alkate Jesus Maria Rodriguez Gomezek betetzea proposatu da. Proposamen horren justifikazioa da izendapen horrekin NUKFko gobernu-organismoetan aniztasun politikoa lortuko dugula, erakunde honen izaerarekin bat datorren aniztasuna. Halaber, presidenteorde gisa partaide izanen den batzordeetan eta kontseiluetan lurralde-oreka handiagoa egotea ahalbidetuko luke.

Goñi andreak galdetu du zer gertatuko litzatekeen baldin eta Oloibarko Udalaren aurkako helegitea aintzat hartuko balitz. Erantzun zaio ebazpenaren zain egon beharko genukeela, baina, printzipioz, alkate izaera berreskuratuko balu, NUKFko bigarren presidenteordearen kargua ere berreskura lezakeela.

Garbayo andreak galdetu du ez legokeen arazorik presidenteordearen aukeraketa batzarrak egingo ez balu. Idazkari nagusiak esan du estatutuek ematen duten aukeretako bat izendapen hori batzorde betearazleak egitea dela. Aipatu den moduan, aurreko presidenteordea partaide zen batzordeetatik eta kontseiluetatik berehala ordezkatzeari ahalbidetzen dute.

Rodriguez jaunak eskerrak eman ditu harengan eta haren alderdi politikoan jarritako fonfiantzagatik.

#### **ERABAKI DA:**

**Lehena.** Batzorde betearazleak berak erabakitzea batzordekideen artean norik beteko duen NUKFaren bigarren presidenteordetza-kargua; hutsik, orain arte kargu hori betetzen zuen pertsonak alkate izateari utzi baitio.

**Bigarrena.** Kargua Jesus Maria Rodriguez Gomezek, Ribaforadako alkateak, beteko du.

#### **2. PUNTUA. Bigarren presidenteorde partaide zen batzorde eta kontseilu sektorialetarako haren ordezkioak izendatu.**

Bigarren presidenteordea partaide zen batzorde eta kontseilu sektorialetarako haren ordezkioak izendatzea proposatzen da, honela:

Lehena. Jesus Maria Rodriguez Gomez izendatzen dugu ondoren aipatzen diren batzorde eta kontseiluetarako aurreko bigarren presidenteordearen ordezkio gisa:

- Geserlocal
- NILSaren Administrazio Kontseilua
- Lurraldearen Antolamenduko Batzordea
- Nafarroako taxien kontseilua (ordezkoa)
- Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko gobernu-kontseilua.

Bigarrena. Bigarren presidenteordea kide zen batzorde eta kontseilu sektorialetarako izendapenak aldatzea:

- Toki Araubideko Foru Batzordea:  
*Unai Lako Goñi jn., Agoizko alkatea.*

- Nafarroako Eskola Kontseilua:  
*Karmele Marañon Chasco and., Arbizuko alkatea*

Garbayo andreak esan du logikoagoa litzatekeela Toki Araubideko Foru Batzorderako kide Jesus Maria Rodriguez izendatzea, 2. presidenteordea den aldetik.

Presidenteak esan du Jesus Maria Rodriguez dagoeneko aipatu batzordean entzule gisa parte hartzen duela, eta Unai Lako izendatu izanak lurralde- eta politika-ordezkaritzako irizpideei erantzuten diola.

Jesus Maria Rodriguezek esan du foru-batzordeak duen funtzionamenduari erreparatuta ez duela arazorik ikusten entzule gisa jarraitzeko.

#### **ERABAKI DA:**

Bigarren presidenteordea partaide zen batzorde eta kontseilu sektorialetarako ordezkaritza aldatzea proposatutako baldintzetan.

### **3. PUNTUA. NUKFk 2016an eginen duen ohiko batzar nagusiko deialdia eta gai-zerrenda.**

NUKFren ohiko batzar nagusia 2016ko abenduaren 16rako deitzea proposatzen da. Aipatu batzarra Iruña Park hotelean eginen da arratsaldeko 16:30ean lehenengo deialdian, eta arratsaldeko 17:00etan bigarren deialdian, honako gai-zerrendarekin:

- 1.- 2015/12/18ko eta 2016/07/01eko batzarren aktak onartu.
- 2.- Bigarren presidenteordetza kargua hutsik geratu izanari buruzko informazioa eta hura ordezkatu.
- 3.- NUKFren 2016. urteko kudeaketa-txostena onartu.
- 4.- NUKFren 2017rako jarduera-programa onartu.
- 5.- NUKFren 2017rako aurrekontua onartu.
- 6.- Galde-eskeak.

#### **ERABAKI DA:**

NUKFren ohiko batzar nagusia 2016ko abenduaren 16rako deitzea. Aipatu batzarra Iruña Park hotelean eginen da arratsaldeko 16:30ean lehenengo deialdian, eta arratsaldeko 17:00etan bigarren deialdian, proposatutako gai-zerrendarekin.

### **4. PUNTUA. NUKFren kudeaketa-txostena, 2016.**

Presidenteak kudeaketa-txosteneko alderdirik garrantzitsuenak azaldu ditu, Aipatu txostena batzorde betearazleko deialdiarekin batera bidali da, NUKFren ohiko batzar nagusiak onar dezan.

Bidalitako txostenaren inguruan presidenteak lau zuzenketa proposatu ditu, bidalitako agirian jasotzen den informazioa gehiago argitzen dutenak.

"*Beste zerbitzu batzuk*" atalaren barnean Geserlocali buruzko informazioari dagokionez, presidenteak esan du haren jarduerari eta ematen dituen zerbitzuei buruzko laburpena jaso dela, eta 2017ko kontuetan sozietatearen emaitzei buruzko informazioa jasoko dela.

Batzorde betearazlearen onespenean jarrita,

**ERABAKI DA:**

2016ko kudeaketa-txostena onartzea (txostena eranskin gisa gehitu zaio aktari), eta NUKFren ohiko batzar nagusira eramatea onartua izan dadin.

**5. PUNTUA. 2017rako jarduera-programa**

Presidenteak batzorde betearazlearen irizpenean jarri da NUKFren 2017rako jarduera-programaren proiektua (deialdiarekin batera banatu zen), ondoren NUKFren ohiko batzar nagusiak onar dezan.

**ERABAKI DA:**

NUKFren 2017rako jarduera-programa proposamen gisa onartzea NUKFren ohiko batzar nagusiak onar dezan. Aipatu txostena aktan jasoko da eranskin gisa.

**6. PUNTUA. NUKFren aurrekontua 2017rako.**

Presidenteak NUKFren 2017rako aurrekontu-proiektua aurkeztu du. Hitza eman dio NUKFko ekonomia-aholkulari Fermin Cabasesi, 2016ko aurrekontuarekiko aldaketa nabarmenenak azal ditzan.

Bertan direnek hainbat partida argitzea eskatu dute; zehazki, aholkularitza teknikorako partida murriztu izanagatik, garbiketarako partida eta argitalpenetarako eta lankidetzetarako igo izanagatik.

**ERABAKI DA:**

NUKFren 2017rako aurrekontu-proiektua onartzea NUKFren batzar nagusiak onar dezan. Aipatu proiektua aktan jasoko da eranskin gisa.

**7. PUNTUA. Euskara teknikaria kontratatzeke oinarriak onartu.**

Presidenteak azaldu du, aurreko bileran adostutakoaren arabera, euskara-teknikari bat kontratatzeke oinarriak berraztertu direla, postu horren profil egokia bilatze aldera. Lanaldiari dagokionez, azaldu du lanaldia partziala edo egun osoko lanaldia izan behar ote den zehaztu beharra dagoela.

Jarraian, idazkari nagusiak azaldu du zein diren oinarrietan izendapenari, eginkizunei eta burutu beharreko probei eragiten dieten aldaketa nagusiak. Lanpostua 'teknikari-itzultzaile' deitzen da, eta eginkizunen artean, itzultzaile-lanak burutzeaz gain, NUKFk burutuko dituen jardueretan laguntzea eta interpretazio-lanak egitea dago, baita, unean-unean, hizkuntzaren arloan toki-erakundeei laguntzea eta aholkua ematea ere.

Garbaya andreak galdetu du burutu beharreko eginkizunen arabera lanpostuak A mailan kokatu behar ote den. Izan ere, hala egin behar izatekotan, ez da murrizten gaur egun zerbitzu horretarako dagoen kanpo-kontratazioaren gastua.

Idazkari nagusiak esan du eginkizun nagusia itzultzailearena izanik, A maila dagokiola.

Lanaldiari dagokionez, hainbat esku-hartzek diote komenigarria litzatekeela lanaldi osoko kontratazioa egitea, eraginkorragoa baita.

Nolanahi ere, Garbayo andreak, Aguirre jaunak eta Fabo jaunak zalantzak dituzte gai horrekiko, eta horregatik abstentziora joko dute.

Rodriguez jaunak galdetu du zer ordainsari izanen dituen lanpostuak.

Printzipioz A mailari dagokiona edukiko duela esan da, eta, hala badagokio, dedikazioaren eta eginkizunen arabera ezar daitezkeen ordainsari osagarriak.

Marañon andreak esan du printzipioz A mailari dagokion ordainsaria ezarri beharko litzatekeela. eta gerora, lanpostu finkatutakoan, baloratuko dugula ordainsari osagarriak ezartzearena.

#### **ERABAKI DA:**

Euskara-teknikari eta itzultzaile bat kontratatzeko oinarriak onartzea. Oinarriak aktan jasoko dira eranskin gisa.

#### **8. PUNTUA. PRESIDENTEAREN INFORMAZIOA**

Presidente jaunak honako gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Udaltzainen ordainsariak direla-eta, Barneko kontseilariarekin egindako bilera bati buruzkoa. Bileran gaiari buruz dauden iritzi desberdinak agerian geratu ziren. Kontseilariak poliziei buruzko foru-legea onartu asmo du, gai hori eta udaltzainekin lotura duten beste hainbat alderdi arautze aldera. Halaber, jakinarazi da bilera batera deitu direla udaltzainak edo udal-agentek dituzten udaletako alkate guztiak.
- Kontzeju-taldearen osoko bilera. Horretan kontzejuen talde eragileak egin dituen aurrerapenen berri eman zen. Taldeak aldizkako bilerak egiten jarraituko du.
- Lasemeko idazkari-kudeatzailearekin egindako bilera; gertatzen ari diren ausarkeriazko beharpenekin izaten ari diren arazoaren eta horiek saihesten litzaketen irizpideen berri eman zigan; bidaliko dizkigute irizpide horiek baldintza-orriak onartzean kontuan hartzeko.
- Tokiko mapa erreformatzeko prozesua. Esan du zain gaudela Nafarroako Gobernuak dokumentu bat noiz igorriko digun, prozesuaren bigarren fasea martxan jartzeko.

#### **9. PUNTUA. Galde-eskeak.**

Larrarte jaunak proposatu du posible ote den nolabait ere (diru-laguntzen edo halakoren bitartez) partikularren etxebizitzak Nafarroako Gobernuaren poltsan sartzea, eta juridikoki aztertzea eskatu du.

Zuntz optikoko plan zuzentzaileari dagokionez, plan horretan sartuta ez egonda ere, toki-erakundeak sarterik ba ote dagoen planteatu du. Esan du gaiari buruzko informazio-bilerak egin beharko liratekeela.

Etxeberria jaunak esan du ezindu baten kexa jaso duela, ez baitaio aplikatu ezinduen autoentzako zirkulazio-zergak aurreikusten den salbuespena. Zerga-salbuespen horren lege-erregulazioa aldatu beharko litzatekeela iritzi dio, ibilgailuak hamabi zalditik gorakoak izanagatik ere salbuespen hori aplikatu ahal izateko.

Gai horren inguruan aipatu da une honetan Toki Ogasunei buruzko Foru Legea aldatzen duen forulegea (horretan sar liteke) tramitatzen ari dela. Cabases jaunak esan du oso zaila dela estatuko legeriaz bestelako moduren batean arautzea.

Marañon andreak planteatu du komenigarria litzatekeela NUKFk bere babesa helaraztea Altsasuko alkateari. Halaber, posible litzateke gaiaren inguruan bestelako ekimenik lantzea ere. Presidenteak esan du gaur gero bidalia duela komunikatu bat NUKFko presidente gisa.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko hemezortziak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA

IDAZKARIA

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.